

IZENGOITIAK NAFARROAKO OIKONIMIA HISTORIKOAN

Andres INIGO

1. SARRERA

Lan honen helburua Nafarroako oikonimia aberatsaren alderdi bat ezagutzera ematea da. Baina, lehenik eta behin, beharrezkotzat jotzen dugu zenbait zehaztapen egitea:

- a) Nafarroako euskal oikonimiaz ari gara, hots, euskal jatorria duten etxe izenez, *Arotzarrarena* [ez **Casa del herrero viejo*], edo euskal forma hartu dutenez, *Morenorena* [ez **Casa del moreno*].
- b) Ez gara Erkidego guztiaz ari, aipatutako etxe izenak ageri diren eremuaz baizik. Orain arte egindako ikerketen arabera, eremu horren muga irudikatzen ahal duen lerroak, Ekialdetik Mendabalderantz, honako ibilbide hau markatuko luke: Erronkaritik hasi eta ibar hau, Zaraitzu eta Urraul hegoaldetik pasatu ondoren Oibar eta Orba ibarrak gurutzatuko lituzke, hemendik segituz Itzarbeibar iparraldetik zeharkatuko luke eta ondotik Zizur Zendea, Etxauribar eta Goñerri hegoaldetik, azkenik, Amekoetako zenbait herri gurutzatuz, Arabako mugara iritsi arte.
- c) Etxe izen historikoez ari gara, XVIII. mendera arte dokumentatuak ageri direnez, *Apeos de Navarra de 1726 y 1727* agirietatik eta XVII. mendeko bertze *Apeo* batzuetatik jasoak batik bat, eta lan honen amaieran aipatzen den bibliografiatik ere. Kontuan izan behar da XVIII. menderaino nahiko zuzen eta itxura aldatze handiegirik gabe transkribatu ohi zirela toponimoak Nafarroako agirietan. Desitxuratxe nabarienak XIX. eta XX. mendeetako agirietan aurkitzen dira, katas-

trokoetan gehienbat. Hortaz, XVIII. mendera arteko oikonimo guztiak oso gardenak ez badira ere, izen horietan ageri diren erreferentziak, neurri handi batean behintzat, nahiko ongi bermatzen ahal dira. Erreferentziatzen izengoitiak dituzten oikonimoen azalpena eta sailkapena eskaintzea da lan honen helburua.

Ezaguna da Euskal Herrian etxeak (izan) duen eragina familietan, etxea izan baita euskal gizartearen oinarri eta funtsa. Ukaezina da euskaldunek etxearen aldera duten lotura, sentimendua, errespetua eta maitasuna. Ezau-garri horiek ezin hobeki azaldu zituen Xalbador urepeldarrak *Xalbadorrenea* bere sortetxeari eskainitako bertsoetan:

Oi gure etxea maitea,
oroitzapenez betea,
zorionaren atea!
Zure altzoan iragana dut sortzetik orai artea.
Izanagatik pobrea,
bertzeak baino hobea
ni sortu nintzan etxea.

Dudalarik zerbait pena,
zu zaitut lagun lehena,
ihes leku hoberena.
Zure alderat inguratzen naiz ahalik eta maizena.
Munduko leku maitena,
zuri zor dautzut naizena:
izana eta izena.

Arbasoen eskutik jina,
o egoitza atsegina,
ez dakit zure adina.
Heiek lurpean estali ziren zutan utzirik arima.
Hain amultsuki egina,
heientzat zer bihotz mina
zutaz gabetzen bagina!

Etxeak nortasun berezia du euskal gizartean eta nortasun horren seinale da, ematen duenez, Erdi Arotik hasita agirietan eta modu ofizialean erregistratua ageri den izena. Batzuetan etxeak eman dio deitura familiari eta bertze batzuetan jabearen erreferentzia (izena, deitura, lanbidea, jatorria, izengoitia...) hartu du izentzat etxeak.

Nafarroako oikonimoen sorburuak aztertzean etxe izen franko ageri zaizkigu izengoitietan oinarrituak, seinale gure gizartean izengoitiak erabiltzeko joera aspaldikoa dela. Izan ere, agiri zaharretan ohitura hori erabat zabaldua zegoela ikusten ahal da.

Jakina da XVII. mendera arte, behinik behin, pertsona izen gutxi erabiltzen zela eta, hortaz, izen berak errepikatzen zirela familia gehienetan eta zenbaitetan familia bakoitzeko artean ere bai. Hori zela eta, izen bereko pertsonak bereizi beharrak izengoitiak jartzera bulkatzen zuen nonbait. Kontua da, eskribauek agiri ofizialetan edozein pertsonaren datuak ematean, izenarekin batera izengoitia ere modurik normalenean idazten zutela, batzuetan *alias* hitza aitzinetik jarritz («joanot caleguruçea alias burugogor», Doneztebe 1548), bertze batzuetan *alias* ordez *llamado* («el sastre llamado yzterreder», Elizondo 1587), edo *dicho* hitzak («xoaneto dicho beguibelx», Sunbilla 1494). Zenbaitetan, zehaztapen hori espresuki ageri ez bada ere, argi ikusten da izengotia dela («el çapatero biçargorria», Leitza 1587). Izengoiti horiek oikonimoetan erroturik gelditzeaz gain, deitura ere bihurtu dira eta gaurdaino iritsi zaizkigu, hala nola, *Beltzarena*, *Musugorri*, *Txipirena*...

Ugari dira izengoitietan oinarritutako oikonimoak Nafarroan. Ez da lan honen xedea horien guztien jatorria zehatz-mehatz aztertzea, bai ordea helburu horretara bideratzea, oikonimoen osagaiak azalduz eta erreferentzien araberako sailkapena eskainiz.

2. ETXE IZENEN OSAGIAK

Lan honetan ageri diren etxe izenen osagaiak aztertzean, honako hiru atal hauek azaldu nahi ditugu: 1) oikonimoak osatzen dituzten elementuen deskribapena; 2) hipokoristikoak sortzen dituzten atzizkiak; 3) *etxea* adierazten duten amaierako atzizkiak. Ikus ditzagun banan-banan hiru atal hauek:

2.1. Oikonimo bakoitza osatzen duten elementuak

Oikonimo bihurtu diren izengoitiak behin edo bertze soilik ageri zaizkigu (*Arro*, *Sotil*), batzuetan *-a* amaierarekin (*Luxea*, *Potroa*, *Ttipia*), eta zenbaitetan lan honen 2.3. atalean sailkatuta ageri diren *etxea* adierazten duen atzizkiren batekin (*Gixonena*, *Gorrienea*, *Mutilarena*, *Saltsakoa*, *Ezkerrenekoa*, *Ixilabaita*, *Kusindegia*, *Makoaga*, *Ontzarreta*). Gehienetan, ordea, izengoiti edo sorburuaren eta *etxea* adierazten duen amaierako atzizkiaren artean, bertze zenbait osagarri tartekatzen dira: izenak, izenondoak, hipokoristiko atzizkiak, lekuzko postposizioak, etab. Hona hemen aurkitu ditugun konbinazioen eskema:

– Izena soilik: *Marro*, *ahari* izenaren sinonimoa.

- Izenondoa soilik: *Eixker*, *ezker* hitzaren aldaera hipokoristikoa.
- Izenondoa *-a* artikuluaekin: *Luzea* (*luze* + *-a*); *Motela* (*motel* + *-a*); *Ttipia* (*ttipi*, *tipi* izenondoaren hipokoristikoa + *-a*).
- Izena + izenondoa: *Juanzar* (*Juan* + *zar* < *zahar*); *Paulomotz* (*Paulo* + *motz*).
- Izena + izenondoa + *-a*: *Andreederra*, (*andre* + *eder* + *-a*); *Pedrotxikia* (*Pedro* + *txiki* + *-a*).
- Izenondoa + izenondoa + *-a*: *Apalarroa* (*apal* + (*h*)*arro* + *-a*). Dena dela, itxuraz izenondoa dela ematen badu ere, kontuan izatekoa da *Apalo* eta *Apala* Erdi Aroan pertsona izenak ere bazirela (Salaberri 2003-b:152).
- Izena + atzizkia: *Gixonena* (*gizon* izenaren hipokoristikoa + *-ena*).
- Izenondoa + atzizkia: *Kamutsena* (*kamuts* + *-ena*); *Sendoarena* (*sendo* + *-arena*).
- Izena + hipokoristiko atzizkia: *Txakurtxo* (*txakur* + *-txo*).
- Izena + izenondoa + atzizkia: *Marimotzena* (*Mari* + *motz* + *-ena*).
- Izena + hipokoristiko atzizkia + izenondoa + atzizkia: *Mitxelkoandiarrena* (*Mitxel*, *Migel* edo *Mikel(e)* izenaren hipokoristikoa + *-ko* + *handi* + *-arena*).
- Izena + izenondoa + hipokoristiko atzizkia + atzizkia: *Mariederkorena* (*Mari* + *eder* + *-ko* + *-rena*).
- Izena + izenondoa + atzizkia + lekuzko postposizioa + *-koa*: *Matxinandiarenagaraikoa* (*Martin* + (*h*)*andi* + *-arena* + *garai* + *-koa*). Ikusten ahal den bezala, *Matxinandiarena* oikonomotik bereizteko gehitu zaio *garaia* lekuzko postposizioa.
- Izena + hipokoristiko atzizkia + atzizkia + lekuzko postposizioa + *-a*: *Erregetxonegaraia* (*errege* + *-txo* + *-ne(a)* + *garai* + *-a*).
- Izenondoa + atzizkia + lekuzko postposizioa + *-a*: *Beltxarenagaraia* (*beltx*, *beltz* hitzaren aldaera txikigarria + *-arena* + *garai* + *-a*).
- Izena + hipokoristiko atzizkia + atzizkia: *Juanikorena* (*Juan* + *-iko* + *-rena*).
- Izena + hipokoristiko atzizkia + izenondoa + *-a*: *Juankotxipia* (*Juan* + *-ko* + *tchipi* + *-a*).
- Izena + hipokoristiko atzizkia + izenondoa + atzizkia: *Mitxelkoandiarrena* (*Mitxel*, *Migel* edo *Mikel(e)* izenaren hipokoristikoa + *-ko* + (*h*)*andi* + *-rena*).
- Izenondoa + hipokoristiko atzizkia + atzizkia: *Xurikorena* (*xuri*, *zuri* izenondoaren edota pertsona izenaren txikigarria + *-ko* + *-rena*).
- Izenondoa + hipokoristiko atzizkia + *-a*: *Ttipittoa* (*ttipi*, *tipi* izenondoaren hipokoristikoa + *-tto* txikigarria + *-a*).
- Izena + izena + atzizkia: *Mairuerregenea* (*mairu* + *errege* + *-nea*).

2.2. Hipokoristikoak sortzen dituzten atzizkiak.

Zenbait oikonimotan ageri dira eta ematen du izengoitiak sortzeko edo indartzeko baliabide gisa ere erabiltzen zirela. Honako hauek kausitu ditugu lan honetako etxe izenetan:

- go*: *Martingobeltzena* (Olague), *Sotilgorenekoa* (Subitza), *Urdingorena* (Arantza).
- iko*: *Juanikoandiarena* (Beraskoain), *Juanikorena* (Arizkun), *Juanikotxikiarena* (Olatz).
- illo*: *Txikillorena* (Gendulain Zizur).
- ko*: *Andikonea* (Adios, Lesaka), *Juankotxipia* (Garralda), *Mitxelkoandiarena* (Elizondo), *Mutikorena* (Zilbeti), *Petrikoandiarena* (Etxalar), *Xotilkorena* edo *Txotilkorena* (dok. *Chotilkorena*, Subitza), *Txurikoain* (Urritza), *Txurikoenea* (Egillor-Beasoain).
- kot(e)*: *Moxkotena* (Igantzi).
- no (ño)*: *Txipinorena* (Eriete), *Mariñorena* (Luzaide), *Martiñorena* (Luzaide).
- (o)t(e)*: *Baskotena* (Doneztebe), *Baskotenea* (Zubieta), *Xakilotena* (Ituren).
- sko* (< *s* + *ko*): *Andiskorena* (Lesaka), *Buruskonea* (Lesaka).
- to* (–*tto*): *Erbitorena* (Eritze Itza), *Migeltotxipia* (Lakuntza), *Txikitonea* (Latasa), *Txikitorena* (Sagaseta), *Txipitonea* (Igantzi), *Txipitorena* (Arizkun), *Tipittoa* (Luzaide), *Xuitorena* (Ituren).
- txo*: *Aputxorena* (Akerreta), *Arakintxorena* (Goizueta), *Aurtxorena* (Nagore), *Bizkaintxorena* (Lesaka), *Erregetxonea* (Lesaka), *Erregetxonegaraia* (Lesaka), *Gorritxorena* (Beraskoain, Biurrun), *Maritxipitxonea* (Urroz), *Txakurtxo* (Goizueta), *Txipitxorena* (Amaiur, Elbete), *Urdintxorena* (Ilarregi, Makirriain).
- xo*: *Urdinxonea* (Lesaka).

2.3. Atzizkiak

2.1. atalean azaldu dugun bezala, ehuneko ehunetan ez bada ere, ia-ia oikonimo guztiek daramate *etxea* adierazten duen atzizkia. Lan honetan azal dutako etxe izenetan honako atzizki hauek dira ageri direnak:

- (r)ena* edo –*(r)enea* aldaera. Jatorrian –*(r)en* edutezko genitiboa da, gehi –*a* artikulua: *Atxorena*, *Aurtxikienea*, *Garbalena*, *Gaztearena*, *Jaunzarrenea*...
- koa*. –*ko* leku genitiboa gehi –*a* artikulua: *Barridekoa*.

- (r)eneko(a). Aitzineko biak elkartuak, hots, –(r)en(a), edo –(r)ene(a) edutezko genitiboarena eta –ko(a) leku genitiboarena: *Ezkonberrienekoa, Gorrizenekoa, Lopezarrenekoa, Mutxatxorenekoa...*
- baita. Nafarroan Bidasoa ibaiaren inguruko herrietan soilik ageri da: *Ixillabaita, Mariandiabaita, Pantxikatxikiabaita, Txarrabaita...*
- (t)egi(a), –degi(a) sudurkarien ondotik. Aitzinekoek baino anitzez maiztasun gutxiago du oikonimian, izena, deitura, lanbidea eta izen-goitia adierazten duten etxe izenetan aurkitzen da batik bat: *Kusindegia*.
- aga. Lekua adierazten du. Toponimoetan oso arrunta bada ere, hagitz gutxitan topatzen dugu oikonimian: *Beltzaiaga, Makoaga...*
- eta. Lekua adierazten du, –aga atzizkiak bezala. Honek ere oso presentzia urria du etxe izenetan: *Neskatueta, Ontzarreta...*
- Ø Badira, dena dela, inolako atzizkirik gabe ageri diren oikonimoak: *Bizargorri, Juanbiribil, Juanzar, Marro, Martingalant, Paulomotz*. Horrelakoek, batzuetan –a hartzen dute amaieran: *Isatsandia, Luxea, Ttipitto...*, segur aski, asimilazioagatik edo amaiera hori daramaten etxe izenen eraginez. Dena dela, eskribauen joera ere izan liteke oikonimoak batzuetan azken atzizkirik gabe transkribatzea.

3. IZENGOITIETAN OINARRITZEN DIREN ETXE IZENEN SAILKAPENA

Zenbait atal nagusitan eta horietako hainbat azpi-ataletan sailkatu ditugu izengoitiak. Atal bakoitzeko deskribapen-azalpenean segitutumako irizpidea honako hau da: lehenik, etxeek erreferentziatzat hartzen dituzten izenak euskara batuan edota grafia egokitan eta letra etzanean, ondotik parentesi artean, izen hauen aldaerak –forma hipokoristikoak gehienetan–, eta azkenik grafia egokitan eta letra etzanean etxe izenak, eta hauetako bakoitzaren atzean, parentesi artean, dagokion herri izena.

3.1. Pertsona izen arrunten erreferentziak

3.1.1. Euskal izenak

- *Andre*: *Andreederra* (Izurdiaga).
- *Atso* (*atxo*): *Atxorena* (Ituren, Zubieta). Biak hipokoristiko bihurtutako *atxo* forman oinarrituak.

- *Gazte* (*gaste/kaste*). *Gastea* eta *Gaztea* euskal izenondo ezagunek Erdi Aroko *Gartztea* pertsona izenean dute jatorria. Batzuetan soilik ageri zaizkigu: *Gastearena* (Arrarats), *Gaztearena* (Doneztebe, Etxalar, Ituren), eta bertze batzuetan lanbide edo ponte izen bati elkartuak: *Dendarigazterena* (Lesaka), *Gastelopezenea* (Goizueta), *Juana-kastearena*, -g- > -k- aldaketarekin (Legarda), *Santxogaztearena* (Zia).
- *Gizon* (*gixon/kixon*): Ia beti soilik aurkitu dugu: *Gizonarena* (Bidaurreta), baina gehienetan aldaera hipokoristikoarekin: *Gixonena* (Doneztebe), *Gixonesa* (Garralda), *Gixorena* (Egozkue), eta horietako bietan g- > k- aldaketarekin: *Kixonena* (Aurizberri), *Kixorena* (Doneztebe, Sunbilla). Behin izenondo bati elkartua: *Gizonxuriarena* (Ituren).
- *Haur*. Hiru modutara ageri zaigu, hipokoristiko atzizkiarekin: *Aurtxorena* (Nagore), izenondo batez osatua: *Aurrandirena* (Biurrun), *Aurtxikienea* (Leitza).
- *Jaun*: *Jaunmotzenea* (Doneztebe), *Jaunzarrenea* (Doneztebe).
- *Mutiko*: *Mutikorena* (Zilbeti).
- *Mutil*: *Mutilarena* (Elizondo), *Mutilaskorena* (Elizondo).
- *Neskato*: *Neskatueta* (**Neskatoeta*, Urdazubi).
- *Ume*: *Zarkumarena* (dok. *Çarcume*, Ardaiz). Adineko ama edo gurasoen umea adierazten duen izengoitia dugu.

3.1.2. Erdal izenak

- *Mozo* (*moxo*). Aldaera hipokoristikoarekin aurkitu dugu ia beti: *Moxenea* (Donamaria), *Moxenekoa* (Aitzoain), *Moxo* (Luzaide), *Moxorena* (Ardaiz, Olo), *Mozorena* (Aitzoain, Goizueta, Luzaide, Zuriain).
- *Mutxatxo*: *Mutxatxorenekoa* (Legarda).
- *Txikillo*: *Txikillenea* (Espartza Galar), *Txikillorena* (Gendulain Zizur).

3.2. Ezaugarri pertsonalak

Hau dugu lanaren atalik handiena. Izan ere, izengoitien erreferentziarik gehienak jendearen ezaugarri pertsonalak izaten dira, fisikoak, psikikoak, nahiz bertzelakoak. Horien sailkapena da hurrengo azpi-ataletan azaltzen

duguna.

3.2.1. Akats edo ezindura fisikoak eta eritasunak

- *Garbal*. Burusoil baten etxea izendatzen duena: *Garbalena* (Berroeta).
- *Gor* (*sor*, *kor*): Hiru aldaerak ageri dira. Batzuetan osagaririk gabe: *Korrenea* (Leitza, Lekunberri), *Sorrarena* (Irurita), eta bertze batzuetan pertsona izen baten osagarri: *Juangorrena* (Anotz, Gartzaron), *Martingorrena* (Doneztebe), *Martingorrena* (Oiz).
- *Makur*: *Makurrarena* (Irure), *Makurranekea* (Irure).
- *Mingorri*. Elgorria (izan) duenaren etxea: *Mingorrinekoa* (Oltza).
- *Orin*. Gorputzean oreztak (izan) dituenaren etxea: *Orinduna* (Sunbilla).
- *Soil*: *Sollenea* (Sunbilla), aldaera palatalizatuan oinarritua.

3.2.2. Neurria

- *Handi*. Hagitz arrunta da izenondo honen erabilera, eta, ematen duenez, pertsonaren neurriari dagokio, nahiz eta kasuren batean *handikeria* ere adierazten ahal duen. Kontuan izatekoa da XVIII. mendera arteko agerietako oikonimo hauetan beti (*b*)*andi* forma ageri zaigula. Batzuetan soilik edo hipokoristiko atzizkiarekin aurkitzen dugu: *Andiarena* (Esnotz, Idoi, Ilarratz), *Andikoberri* (Luzaide), *Andikonea* (Adios, Lesaka), *Andiskorena* (Lesaka), baina gehienetan izen konposatu baten bigarren osagarri gisa: *Aurrandirena* (Biurrun), *Buruandiarena* (Berriobeiti), *Isatsandia* (Igantzi), *Juanaandirena* (Irurita), *Juanandiena* (Uitzi), *Juanikoandirena* (Beraskoain), *Mariandiabaita* (Doneztebe), *Martinandi* (Egiarreta), *Martinandiarena* (Oiz, Sagaseta, Zubieta), *Matxinandia* (Uharte Arakil), *Matxinandiarena* (Areso), *Matxinandiarenagaraikoa* (Areso), *Migelandiarena* (Lekaroz), *Mitxelandinea* (Leitza), *Mitxelkoandiarena* (Elizondo), *Muzurroandia* (Añorbe), *Petrikoandiarena* (Etxalar), *Santxoandirena* (Biurrun).
- *Luze* (*luxe*). Soilik edo hipokoristiko atzizkiren batekin doanean *luxe* forma hipokoristikoa da nagusi: *Luxea* (dok. *Lujea*, Lusarreta), *Luxenea* (dok. *Lujenea*, Leitza), *Luxenena* (dok. *Lusenena*, Zarrantz), *Luxerena* (dok. *Luserena*, Urtasun), *Luxerena* (dok. *Lugerena*, Gorriti), *Luxerenea* (Lesaka). Elkarketan, bigarren osagarri ageri

- denean, *luze*: *Joanluzea* (Uhartte Arakil), *Migeluzena* (Ekai), *Paskualuzenea* (Goizueta), *Zamarluziarena* (Amunarritz).
- *Ñimiño*: *Niminoarena* (Arizkun), aldaera despalatalizatuarekin.
 - *Txapar*. Altuera txikiko pertsona izendatzeko: *Txaparrena* (Leitza).
 - *Txikar*. *Txiker* edo agian *xume* adierazteko. Dena dela, *txikar* da ageri den aldaera bakarra: *Txikarreena* (Arano), *Txikarrenekoa* (Zandio).
 - *Txiki/txipi (ttipi)*. *Handi*-rekin batera, neurria adierazteko gehien erabilitako izenondoa da. *Txiki* eta *txipi* formek maiztasun berdintsua dute, bai bakarrik edota hipokoristiko atzizki batekin doazenean: *Txikinena* (Zuriain), *Txikioa* (Adoain), *Txikirena* (Betelu), *Txikitonea* (Latasa), *Txikitorena* (Sagaseta), *Txipiarena* (Arizkun, Elizondo, Lantz), *Txipinorena* (Eriete), *Txipirena* (Arizkun, Berroeta, Irurita, Lantz), *Txipirenea* (Bera), *Txipitorena* (Arizkun, Sunbilla), *Txipitxorena* (Amaiur, Elbete), bai izen baten izenondo osagarri ageri denean: *Anetxipiarena* (Elizondo), *Aurtxikienea* (Leitza), *Auspagintxiki* (Leitza), *Barberesumenetxikia* (Leitza), *Burutxikirena* (Lintzoain), *Juanatxipiarena* (Zubieta), *Juanatxipirena* (Almandoz), *Juanikotxikiarena* (Olatz), *Juankotxipia* (Garralda), *Juanotxipiarena* (Ilurdotz), *Juantxiki* (Luzaide), *Juantxikirena* (Zarikiagi), *Maritxipiarena* (Elbete), *Maritxipitxonea* (Urroz), *Martintxikirena* (Zizur Nagusia), *Matxikirena* (Luzaide), *Martintxipirena* (Oronoz), *Migeltotxipia* (Lakuntza), *Migeltxipirena* (Arantza, Arizkun, Erratzu), *Pantxikatxikiabaita* (Lesaka), *Pedrotxikia* (Gazolatz), *Santxotxikirena* (Zandio). Azkenik, *ttipi* Iparraldeko forma hipokoristikoa, lurralde horrekin muga egiten duen herri batean bertzerik ez dugu aurkitu: *Ttipia* (Luzaide), *Ttipitto* (Luzaide).
 - *Petit*. Erdaratik jasoa, euskarazko *txiki*-ren ordaina: *Petitea* (Doneztebe), *Petitena* (Espartza Galar).

3.2.3. Gorpuzkera, itxura

- *Azkar*: *Azkarrena* (Añezkar).
- *Biribil*: *Juanbiribil* (Elkano).
- *Bizkor (bixkor)*: *Bixkorrena* (dok. *Viscorrena*, Legarda). Ematen duenez, aldaera txikigarria dago dokumentatutako forman.
- *Delgado*. Gaztelaniazko hitzean oinarritu eta euskal forma hartu duen etxe izena: *Delgadorena* (Amaiur). Ikus *Mehar* sarrera atal honetan.

- *Dotore*: *Dotorearena* (Arre). *Doktore* ere izan liteke, gaztelaniazko hitzaren erreferentzia alegia.
- *Eder*. Oikonimo guztietan izen konposatuaren bigarren osagarri gisa ageri da eta maiztasun berean emakumezko nahiz gizonezko izenekin: *Andreederra* (Izurdiaga), *Juanederrena* (Lesaka), *Juanederrenea* (Lesaka), *Mariaderkorena* (Ituren), *Marieder* (Irañeta), *Mariederrena* (Subitza), *Mariederrenea* (Lesaka), *Martiederrena* (Sunbilla), *Migelelderrena* (Luzaide), *Suiederrena* (Lesaka).
- *Ermoso*. Gaztelaniazko ‘hermoso’ hitzean oinarrituta euskal forma hartu duen etxe izena dugu: *Ermosonea* (Doneztebe, Lesaka).
- *Ezker* (*e(i)xker*). Gehienetan zuzenean atzizkiari lotua ageri zaigu. Batzuetan *ezker* formarekin: *Ezkerrarena* (dok. *Ezcarrarena*, Alzorritz, dok. *Ezquerrarena*, Beuntza), *Ezkerrena* (Bera, Eugi, Olondritz, Oronoz, Urritzelki, Ziritza), *Ezkerrenea* (Bera, Sunbilla), *Ezkerrenekoa* (Sagaseta). Bertze batzuetan *exker* hipokoristikoarekin: *Exkerrarena* (dok. *Esquerrarena*, Elizondo, Idoi), *Exkerrena* (dok. *Esquerrena*, Lerrutz, Urritzola-Galain), *Exkerrenea* (dok. *Esquerrenea*, Arantza), eta behin hipokoristiko horren aldaerarekin: *Eixker* (Alli). Ez dugu bi aldiz bertzerik aurkitu pertsona izen baten osagarri gisa: *Mariaezkerrena* (Ituren), *Migelezkerrena* (Bera).
- *Galant*. Gehienetan pertsona izen baten izenondo osagarri bezala ageri zaigu: *Marigalantaren Borda* (Lesaka), *Martingalant* (Uharte Arakil), *Migelgalant* (Uharte Arakil), *Petrigalantenea* (Arantza). Zenbaitetan soilik ere aurkitu dugu: *Galantena* (Arre, Zabaldika), *Galantenea* (Ituren).
- *Higuin*. Antza denez, sorburu (*b*)*iguñ* aldaera palatalizatua duen oikonimoa: *Iguñenea* (Arantza).
- *Izur* (*ixur*). Ile kizkurra duen pertsona izendatzeko erabilia. Dokumentazioko grafiari erreparatzen badiogu, ematen du lekuko guztietan *ixur* txikigarria dugula: *Ixurrarena* (dok. *Igurrarena*, Arizkun), *Ixurrena* (Betelu, Doneztebe, Irurtzun eta dok. *Ijurrena*, Astitz), *Ixurrenea* (Elgorriaga eta dok. *Ijurrenea*, Arano). Ikus *Kresporena* atal honetako *Krespo* sarreran.
- *Kamuts*: *Kamutsena* (Erreta).
- *Korkoil/korkotx*. Pertsona konkorra adieraziko dute seguru asko. *Korkoil*-en forma palatalizatua dugu *Korkollenea* (Doneztebe), eta *korkotx*-en aldaera *Korkosena* (Saldias).
- *Krespo*. ‘Crespo’ gaztelaniazko hitzean oinarritu eta euskal forma hartu duen etxe izena dugu *Kresporena* (Galar). Ikus *Izur* sarrera atal honetan.

- *Lerden*: *Lerderena* (**Lerdenena*, Lantz). Ematen duenez, oikonimo honen sorburua *lerden* izan zitekeen, ondotik *Lerdenena* > *Lerderena* bilakaera egin duena, bertze zenbaitetan ohi den bezala, erraterako *Estebanena* > *Estebarena*.
- *Mako*, *maku*. Antza denez, gorpuzkerari aplikatua dugu honako bi etxe izen hauetan: *Makoaga* (Lesaka), *Makutsoa* (Zubieta).
- *Mehar*: *Mearrarena* (Eritze Itza, Sunbilla), *Mearrenekoa* (Eritze Itza). Ikus *Delgado* sarrera atal honetan.
- *Motz* (*motx*). Hiru modutara aurkitzen dugu izenondo hau. Batzuetan konposizioan, izen baten bigarren osagai: *Jaunmotzenea* (Doneztebe), *Kattalinmotzenea* (Lesaka), *Marimotzena* (Azpilkueta), *Paulomotz* (Doneztebe). Bertze batzuetan soilik: *Motzarena* (Ardaitz, Atallu, Aurizberri, Erratzu, Esnotz, Zabaldika), *Motzenea* (Ituren, Sunbilla), edo *motx* aldaera txikigarrian oinarritua: *Motxane* (Eguarats), *Motxarena* (Ihabar). Azkenik, baditugu bertze bi lekuko forma txikigarri hori *-ko* hipokoristikoarekin osatua: *Moxkorena* (Lizaso, Narbarte), *Moxkotena* (Igantzi).
- *Mozorro*. *Muzurro* aldaeran oinarritua: *Muzurroandia* (Añorbe).
- *Polit*: *Politena* (Goizueta), eta forma palatalizatua hartzen duen *Pollitena* (Uterga).
- *Ponpos*. *Ponpox* hipokoristikoan oinarritua: *Ponpoxarena* (Doneztebe).
- *Sendo*. Pertsona izen baten bigarren osagarri dugu oikonimo batzuetan: *Juansendorena* (Intza), *Lopesendorena* (Arazuri). Soilik, atzizkiari zuzenean lotua bertze batzuetan: *Sendoarena* (Sorauren), *Sendorena* (Zizur Nagusia).
- *Sotil* (*Xotil/Txotil*): *Sotil* da etxe izenetan erregulariki erabili den forma: *Sotil* (Irañeta), *Sotilarena* (Irurita, Urritzola-Galain), *Sotilgorenekoa* (Subitza), *Sotillena* (Iraizotz, Ituren). *Xotil* edo *Txotil* forma afektiboa ere ageri zaigu behin bederen: *Xotilkorena* edo *Txotilkorena* (dok. *Chotilcorena*, Subitza).
- *Zuzen* (*xuxen*). Izenondo honen forma txikigarriak ageri zaizkigu bi lekukoetan. Argi dago *xuxen* forma dugula batean: *Xuxena* (Arribe) eta, itxura guztiaren arabera, *txuxen* bertzean: *Marit(x)uxena* (dok. *Maritujena*, Oieregi).
- *Zabal* (*txabal/xabal*). Bost lekuko bertzerik ez badugu ere, formari dagokionez, hiru aldaera ageri zaizkigu. Behin *zabal* soilik: *Zabalarena* (Erratzu), bertze batean ponte izen bati lotua: *Joanzabalena* (Ekai), eta,

azkenik, *txabal* eta *xabal* forma hipokoristikoak: *Txabalko* (Goizueta), *Txabalkonekoa* (Lotza), *Xabalarena* (Uterga).

- *Zurdo* (*xurdo*). Gaztelaniazko ‘zurdo’ hitzean oinarrituta eta euskal forma hartu duen etxe izena dugu, *xurdo* forma afektiboaz baliatuz: *Xurdorena* (Irure).
- *Zut*. Izenondo hau bi etxe izenetan aurkitu dugu, bietan ponte izen baten osagai gisa eta aldaera hipokoristikoa hartuz; *xut* batean: *Peruxutorena* (Lesaka) eta, ematen duenez, *txut* bertzean: *Martintxutena* (dok. *Martinchutena*, Etsain).

3.2.4. Izaera, nolakotasuna

- *Amoros/amurus*. Izen edo izenondo honen bi aldaerak ageri zaizkigu: *Amorosarena* (Luzaide, Ziga), *Amorosena* (Orotz-Betelu), *Amorosenea* (Doneztebe), *Amosenea* (Arantza), *Amurusbaita* (Bera), *Amurusena* (Etxalar).
- *Apal*: *Apalarroa* (Gartzain).
- *Argi*: *Mikelargienea* (Lesaka).
- *Arin*: *Migelarinekoa* (Elkarte), *Migelariñena* (Elkarte), *-in-* > *-iñ-* palatalizazio automatikoarekin.
- *Atenta*. Ematen duenez, gaztelaniazko ‘atenta’ hitzean oinarrituta euskal forma hartu duen etxe izena dugu: *Atentarena* (Etxauri).
- *Balent*. Lekukotasun eskasa duen izenondoa dugu oikonimo honen oinarri: *Balentena* (Erratzu).
- *Bero*: *Beroarena* (Luzaide).
- *Bibur*. Segur aski *biburri* den pertsonari aplikatua: *Biurrarena* (Eritze Itza). *Biurrarena*, bertzalde, deitura ezaguna da Nafarroan.
- *Burrunba*. Zarata, buila edo iskanbila sortzen duenari egokitutako izen-goitia, ezbairik gabe. *Burrunba* (Luzaide).
- *Dirunahi*: *Dirunaiarena* (Egillor).
- *Disimulado*. Antza denez, gaztelaniazko ‘disimulado’ hitzean oinarrituta euskal forma hartu duen etxe izena dugu: *Disimuladorena* (Badostain).
- *Errebes*: *Errebesena* (Aurizberri).
- *Firrin*. Iparraldean ezagunagoa den hitzaren *firrinta* aldaera dugu lekuko Baztango hiriburuko oikonimoan: *Firrintena* (Elizondo).

- *Gaizto*. Izenondo honetatik eratorritako *gaixto* aldaeran oinarritua: *Gaixtorena* (dok. *Gaistorena*, Anotz Olloibar).
- *Gorotz*. Itxuraz, *gorotz* izenondoa da oikonimo honen bigarren osagia. Hala balitz, Mari alferraren etxea adieraziko luke: *Marigorotzena* (dok. *Marigorossena*, Etxalar).
- *Gozo*: *Gozoenea* (Bera).
- *Harro*. Erranahi hori erakusten du, gure ustez, etxe izen hauetan: *Arro* (Leitza), *Arroarena* (Madotz), eta beharbada bertze bi hauetan: *Arrokoena* (Labaian), *Apalarroa* (Gartzain), azken honetan elkar ketaren bigarren osagai gisa.
- *Haserre*. (*H*)*asarre* aldaeran oinarritua dugu *Asarreena* (Goizueta).
- *Ilun*. Izenondo honen *illun* forma palatalizatua dugu oikonimo honen bigarren osagarri: *Juanillunenea* (Bera).
- *Irrime*. Segur aski *errime* izenondoaren aldaera da, pertsona bizkorra adierazten duena: *Irrimenea* (Lesaka).
- *Isil* (*ixil*). Soilik eta ponte izenaren osagarri gisa ageri zaigu. Bietan *ixilla* aldaera hartzen du: *Ixillabaita* (Lesaka), *Martixilla* (Irurtzun).
- *Judu*: *Judurena* (Artika). Zalantzarik gabe, *judu* izaerari dagokion izengoitia da, eta ez jatorriari.
- *Laster*: *Lasterrarena* (Artika). Kontuan izatekoa da Nafarroan nahiko arrunta dela *Lasterra* deitura.
- *Larru*: *Larrulasorena* (Izkue). *OEHN* ikus daitekeenez, *larru-lazo* erabili izan da *axolagabe* edo *arduragabe* esanahiarekin. Dena dela, ez litzateke alde batera utzi behar adiera fisikoa, hots, larrua laxo duena edo haragi eroriko pertsona.
- *Leun/legun*. Bi aldaera hauek ageri zaizkigu, modu gardenean batean: *Leunena* (Lesaka) eta, ematen duenez, grafia aldaketarekin jasoa bertzean: *Legunorena* (**Legunarena*, Erratzu).
- *Lizun*: *Lizundegia* (Amaiar).
- *Mairu*: *Mairuerregenea* (Lesaka). Pentsatzekoa da *mairu* izaerari, eta ez jatorriari, dagokion izengoitia dela.
- *Maite*: *Maitearena* (Arizkun).
- *Malet*. Antza denez, *jale txarra* edota *abula* den pertsonaren etxea adierazi nahiko luke oikonimo honek: *Maletenea* (Lesaka).
- *Motel*: *Motela* (Zandio), *Motelenea* (Goizueta).

- *Piper*. Izengoiti gisa aplikatua: *Piperrena* (Ituren).
- *Pirrin*. Pertsona erretxina edota ximplea adieraz lezake, baina hitz onomatopeikoa ere izan liteke: *Pirrina* (Elizondo).
- *Porroste* (Goizueta). *Purrusta*-ren aldaera izan liteke, *ufa* egiten duena edo *ufaka* ibiltzen dena izendatzeko.
- *Pott*. Itxuraz *musu* (eman) adiera duela ematen du, baina agian *lur jo* edo *porrot egin* erranahia ere izan lezake: *Gartziapottena* (Irurita).
- *Saltsa*. Ematen duenez, izengoiti gisa aplikatutako hitza dugu: *Saltsakoa* (Zubieta).
- *Tal-tal*. Seguruenik *handik bona* edota *isildu gabe* ibiltzen dena deitzeko: *Taltalbaita* (Bera).
- *Txatxu*. Ganorarik gabekoa edo arin antza den pertsonari dagokiona: *Txatxunea* (Leitza).
- *Txurrupe*, *xurrupe*-ren aldaeran oinarritua (Sunbilla).
- *Zabar*. Ematen duenez, *zabar* hitza du oinarritzat oikonimo honek: *Zabarrangoa* (Untziti).
- *Zarbo* (*txarbo*). *Zarbo* arrain baten izena baldin bada ere, pertsona maltzur edo amarrutsu adierarekin ere erabiltzen da, eta baliteke *txarbo* edo *xarbo* forma afektiboarekin ageri zaigun oikonimoak azken erranahi hori izatea: *Txarborena* (dok. *Charborena*, Beruete).
- *Zintzo* (*txintxo*). Jaso ditugun bi lekukoetan *txintxo* forma hipokoristikoa ageri zaigu, atzizkiari zuzenean lotua batean: *Txintxonena* (Arantza), eta pertsona izen baten bigarren osagarri bertzean: *Juan-txintxenea* (Auza).
- *Zori*: *Zoriarena* (Inbuluzketa, Orkoien).
- *Zorrotz* (*txorrotz/xorrox*). Lekukoak aldaera txikigarrien alde mintzo dira: *Txorrotxena* (Elizondo), *Xorroxenea* (Lesaka).
- *Zozo* (*txotxo*). *Zozo* hegazti baten izena bada ere, jakina da pertsona gatzgabe edota inozoari egokitzen zaiola. Azken hau izan daitekeelakoan gaude oikonimo honetan dugun *txotxo* forma hipokoristikoa erranahia: *Txotxoarena* (Amunarritz).
- *Zuhur* (*txuhur*, *xuhur*). Ematen duenez, *txuhur* > *txur* eta *xuhur* > *xur* forma afektiboak ditugu oikonimo hauetan: *Txurrarena* (Ezkirutz), *Txurrea* (Leitza), *Marixurrea* (Leitza). Baina ez genuke alde batera utzi behar *ixur* ere izaten ahal dutela erreferentziatzat. Ikus *Izur* (*ixur*) sarrera 3.2.3. atalean.

3.2.5. Gorputzaren zatiak

Gorputzaren zatiak pertsonaren ezaugarri fisikoak seinalatzen dituzten izengoiti bihurtzen dira, batik bat forma hipokoristikoan ageri direnean edota kolorea edo tamaina deskribatzen duen izenondo batez osatuak:

- *Begi*: *Begibeltxenea* (Bera), *Begibeltzena* (Biurrun).
- *Bilo*: *Bilogaitz* (Orontze), itxura guztiaren arabera, ile anitzeko edo kalpar handiko bati egotzitako izengoitia.
- *Bizar*: *Bizargorri* (Arano, Erreta), *Bizargorriarena* (Añorbe, Biurrun), *Bizargorrienea* (Beintza-Labaien), *Bizarrenekoa* (dok. *Bizarnekua*, Arteta). *Bizar* hitzarekin lotua egon liteke *Bizarronea* (Ituren), baina ez da batere segurua. Azkenik, *bizarge* (bizarrik gabekoa) izan liteke *Bizargorena* (**Bizargerena*, Larraintzar, Lizaso) etxe izenaren sorburua.
- *Buru*. Behin bakarrik ageri zaigu hipokoristiko atzizkiarekin: *Burus-konea* (Lesaka). Gainerako guztietan, kolorea edo neurria adierazten duen izenondo bati lotua aurkitu dugu, elkarketaren lehendabiziko osagai gisa: *Buruandiarena* (Berriobeiti), *Burutxikirena* (Lintzoain), *Burubeltzena* (Ostitz, Subitza, Uterga), *Burugorri* (Orotz-Betelu), *Burugorriarena* (Goizueta, Idoi, Ukar). Konposaketaren bigarren osagaia txistukaria denean, batzuetan palatalizatua ageri da: *Burutxurirena* (Sorauren), *Buruxurirena* (Errotz), baina bertze batzuetan ez: *Buruzuri* (Aurizberri, Luzaide), *Buruzurirena* (Olatz, Oltza, Undio).
- *Buztan* (*buxtan*). Iduri duenez, dokumentazioa forma hipokoristikoaren alde mintzo da: *Buxtanena* (dok. *Bustanena*, Zubieta).
- *Ezpain*: *Ezpaingorriarena* (Muru-Asterain).
- *Isats*: *Isatsandia* (dok. *Isasandia*, Igantzi).
- *Izter* (*ixter*). Agirietako lekukoek *ixter* forma hipokoristikoa adierazten dute: *Ixterkonea* (dok. *Isterkonea*, Lesaka), *Ixterreneka* (dok. *Isterreneka*, Irurita).
- *Kaxko*: *Kaxkorena* (dok. *Caxcorena*, Lesaka).
- *Musu* (*muxu*): *Muxunenea* (dok. *Mujunenea*, Lesaka) oikonimoan izan ezik, gainerako guztietan izenondo bati lotua doa: *Musuberrirena* (Berriozar), *Musugorri* (Ihabar), *Musugorriarena* (Berriozar), *Muxugorri* (Izu), *Muxurdin* (dok. *Mujurdin*, Orbaizeta).

- *Pantarrila*. *Azta* hitzaren ‘pantorrilla’ gaztelaniazko ordaina du sorburutzat oikonimo honek, asimilazioz *pantarrilla* bilakatua: *Pantarrillenekoa* (Izkue).
- *Pito*: *Pitorenea* (Areso). Ikus *Zakil* sarrera atal honetan.
- *Potro*: *Potroa* (Leitza).
- *Sorbald*: *Sorbaldarena* (Beuntza).
- *Sudur*: *Sudurrarena* (Artika), *Sudurrena* (Berriozar).
- *Zakil* (*xakil*). Jaso dugun oikonimoak *xakil* forma hipokoristikoa du oinarritzat: *Xakilotena* (dok. *Xaquilotena*, *Chaquilotena*, Ituren).

3.2.6. Koloreak

- *Beltz* (*beltx*). Modu anitzetara aurkitzen dugu. Batzuetan soilik: *Beltxarena* (Arizkun, Lizasoain), *Beltxarenea* (Eratsun), *Beltxena* (Egues), *Beltza* (Arteta, Uharte Arakil), *Beltzarena* (Luzaide, Zabaldika), edo lekuzko postposizio batez osatua: *Beltxarenagaraia* (Narbarte). Bertze batzuetan gorputzaren zati baten izenondo gisa: *Begibeltxenea* (Bera), *Begibeltzena* (Biurrin), *Burubeltzena* (Ostiz, Subitza, Uterga). Gehienetan, ordea, pertsona izen baten bigarren osagarri ageri da: *Errandobeltxenea* (Bera), *Juanbeltxena* (Abaurregaina, Zabaldika), *Juanbeltzena* (Arribe, Saratsa), *Maribeltzena* (Arizkun), *Martinbeltzena* (Larrasoaña), *Martinbeltzenea* (Lesaka), *Martinbelzbaita* (Bera), *Martingobeltzena* (Olague), *Matxinbeltzenea* (Lesaka), *Perubeltzarena* (Etxalar), *Petribeltxena* (Doneztebe).
- *Berde*: *Juanberderena* (Arizkun).
- *Gorri*. *Beltz* kolorea bezala, maiz eta modu anitzetara aurkitzen dugu. Soilik edo hipokoristiko atzizkiarekin: *Gorriarena* (Arizkun, Espartza Galar, Gazolatz, Irurtzun, Lakabe, Narbarte, Olabe, Ollo, Ziga), *Gorrienea* (Oronoz), *Gorrierena* (Orotz-Betelu), *Gorrirena* (Ekai), *Gorritxena* (Sorauraen), *Gorritxenea* (Oronoz, Sunbilla), *Gorritxorena* (Beraskoain, Biurrin), *Gorrixena* (Zuriain), *Gorrizenekoa* (Etxauri). Gorputzaren zati edota jantzi baten izenondo gisa: *Bizargorri* (Arano, Erreta), *Bizargorriarena* (Añorbe, Biurrin), *Bizargorrienea* (Beintza-Labaien), *Burugorri* (Orotz-Betelu), *Burugorriarena* (Goizueta, Idoi, Ukar), *Ezpaingorriarena* (Muru-Asterain), *Galtxagorriarena* (Sunbilla), *Jakagorri* (Bera), *Kapelugorri* (Goizueta), *Musugorri* (Ihabar), *Musugorriarena* (Berriozar), *Muxugorri* (Izu). Pertsona izen baten bigarren osagarri: *Joangorri* (Irañeta), *Joangorriarena* (Zubieta), *Juane-*

gorriarena (Betelu), *Juangorriarena* (Esnotz), *Lopedorriarena* (Urtasun), *Mariagorriarena* (Doneztebe), *Marigorria* (Etxarren), *Martingorrienea* (Arano), *Otxagorrienea* (Lesaka), *Pedrogorriarena* (Larunbe), *Perugorriarena* (Etxalar), *Simongorriarena* (Espartza Galar), *Xemerogorria* (Garralda).

- *Moreno*. Beltz hitzaren gaztelaniazko ordainean oinarrituta sortu den euskal oikonimoa: *Morenekoa* (Adios), *Morenoren* (Arantza). *Moreno* deitura ere nahiko hedatua dago Nafarroan.
- *Urdin*. Gainerako koloretan ez bezala, aldiro soilik edo hipokoristikoki atzizki bati lotua ageri zaigu: *Urdinekoa* (Ezkirotz), *Urdinena* (Berroeta, Doneztebe), *Urdinenekoa* (Ezkirotz), *Urdingorena* (Arantza), *Urdintxorena* (Ilarregi, Makirriain), *Urdinxonea* (Lesaka).
- *Zuri* (*txuri*, *xuri*). Beltz eta gorri koloretan aurkitutako konbinazioak errepikatzen dira. Soilik edo hipokoristikoki atzizki batekin, gehienetan *txuri* edo *xuri* hipokoristikoki oinarrituta: *Txuriarena* (Ezkirotz), *Txurikentenea* (Donamaria), *Txurikoenea* (Egillor-Beasoain), *Txurinea* (Beruete), *Txurio* (Zuhatzu), *Txuriobaita* (Bera), *Txurionea* (Leitza), *Txuriorena* (Donamaria, Saldise), *Txurkorena* (**Txurikorena*, Sunbilla), *Xurikorena* (Artozki, Uritz), *Xuriñorena* edo *Txuriñorena* (dok. *Churiñorena*, Luzaide), *Xuriorena* (Etxalar, Irurita), *Zuria* (Eparotz), *Zuriarekoa* (Mezkiritz), *Zuriarena* (Ardaitz, Mezkiritz, Ortz-Betelu), *Zurirena* (Ozkaritz). Behin lekuzko postposizio batez osatua: *Txurikoain* (**Txurikogain*, Urritza). Gorputzaren zati edota jantzi baten izenondo gisa: *Burutxurirena* (Sorauren), *Buruxurirena* (Errotz), *Buruzuri* (Aurizberri, Luzaide), *Buruzurirena* (Olatz, Oltza, Undio), *Jakatzuri* (Asiain). Pertsona izen baten bigarren osagarri: *Garzezuria* (Bera), *Gizonxuriarena* (Ituren), *Joanzuri* (Uharte Arakil), *Joanzurirena* (Elkarte), *Juanazuri* (Artozki), *Martinzuri* (Irañeta), *Migeltxurirena* (Zabaldika), *Sastrezuriarena* (Garralda).

3.2.7. Janzkera

Janzkerak gorputzaren itxurarekin lotura handia du. Hori dela eta, ageri dira zenbait arropa izen izengoitien oinarri gisa:

- *Galtza*: *Galtxagorriarena* (Sunbilla), *Galtxarena* (Urtasun). Bietan *galtxa* hipokoristikoki oinarrituta.
- *Jaka*: *Jakagorri* (dok. *Jacagorri*, Bera), *Jakatzuri* (dok. *Jacachuri*, Asiain). *Txaka* edo *Xaka* forma hipokoristikoa ere ageri da: *Txakatxuriarena* (dok. *Chacachuriarena*, Ukar).

- *Kapelu*: *Kapelugorri* (Goizueta).
- *Zamar*. Ematen duenez, (ardi) larrua eramaten zuenari jarritako izen-goitia da, kontuan izanik *Zamargillearena* (Doneztebe, Ituren, Legasa) eta antzeko oikonimoak ezagunak direla Nafarroan: *Zamarluziarena* (Amunarritz), *Zamarrengoa* (Zubieta). *Txamar* edo *Xamar* hipokoristikoa ere ageri da: *Txamarrena* (dok. *Chamarrena*, Beriain).
- *Ziriku* (*xiriku*). Zetazko oihala: *Zirikurena* (Ilurdotz) eta forma hipokoristikoa hartzen duen *Xirikurena* (Agorreta, Gendulain Esteribar).

3.2.8. *Animaliak*

Animalien izenak erabili izan dira izengoiti gisa, pertsonen zenbait ezau-garri edo izateko modua adierazteko. Hori dela eta, sortu dira erreferentzia-tzat animalien izena duten zenbait oikonimo, gehienetan hipokoristiko atziz-ki batez osatuak.

- *Apo*. *Apu* aldaeran oinarritua: *Aputxorena* (Akerreta).
- *Besugo*. Gaztelaniazko hitza izengoitizat hartuta sortutako euskal oikonimoa: *Besugorena* (Ziritza). Iribarrenek honela dio: “Besugo. Despectivo. Se aplica al torpe, al obtuso y al corto de vista, por el parecido de los ojos saltones del miope con los ojos del besugo”
- *Erb*: *Erbitorena* (Eritze Itza).
- *Errotatxori*. Azkuek dioenez, *txolarre*, *etxetxori* edo *elitzxori*-ari *errotatxori* ere deitzen zaio Nafarroan: *Errotatxorienea* (Lesaka).
- *Hontza*: *Hontzarreta* (**Hontzazarreta*, Goizueta).
- *Kikirrenea* (**Kilkirrenea*, Urdazubi), *kilker* hitzaren *kilkir* aldaera izan liteke oikonimo honen iturburua.
- *Mamu*: *Mamuxarena* (Erratzu), *mamu* gehi *-xa* hipokoristiko atziz-kiarekin.
- *Marro*. *Ahari*-aren sinonimoa Nafarroan, egun ere bizirik dagoena, Luzaiden erraterako: *Marro* (Ardatz Itzagaondoa), *Marrorena* (Altzorritz).
- *Ordots*. *Ordotx* hipokoristikoaz baliatuz: *Ordotxena* (Orotz-Betelu).
- *Otso*: *Osoarena* (Doneztebe), *Otxogorrienea* (Lesaka). Kontuan izatekoa da Erdi Aroan hain arrunta zen *Otsoa* ponte izena ere izaten ahal dela oikonimo hauen iturburua.
- *Txakur*: *Txakurtxo* (Goizueta).

3.3. Adina

- *Berri*. *Zabar*-en aurkakoa eta, ematen duenez, batzuetan *gazte*-aren erranahi bertsua hartzen du: *Arozberriarena* (Muru-Asterain), *Euntzaleberriarena* (Muru-Asterain), *Martinberria* (Abaurregaina), *Martinberriarena* (Luzaide), *Musuberrirena* (Berriozar).
- *Gazte/gaste*. *Gaztea* eta *gastea* euskal izenondo ezagunak Erdi Aroko *Gartzea* pertsona izenean jatorria duten aldaerak dira eta biak hagitz arruntak. Hala ere, pentsatzekoa da *gaste* formarekin transkribatuak jaso ditugun izenen azpian *gaxte* afektiboa egoten ahal dela. Batzuetan soilik ageri zaigu: *Gastearena* (Arrarats), *Gaztearena* (Doneztebe, Etxalar, Ituren). Bertze batzuetan pertsona edo lanbide izen bati elkartua, bigarren osagarri gisa: *Dendarigazterena* (Lesaka), *Gastelopezenea* (Goizueta), *Juanakastearena*, -g- > -k- aldaketarekin (Legarda), *Santxogaztearena* (Zia), *Dendarigaztearena* (Lesaka), edo lehenbiziko osagarri: *Gastelopezena* (Goizueta).
- *Zabar*. *Zar* (*txar/xar*). Gehienetan izen baten bigarren osagarri gisa ageri da. Anitzetan *zar* forma gordetzen du, erraterako: *Alkatezarra* (Aurizberri), *Alkatezarrarena* (Lekunberri), *Apezarrarena* (Badostain, Bidaurreta, Iriso, Muru-Asterain, Orrio, Sagues, Zarikegi, Zurukuain), *Arakinzarrarena* (Ostitz), *Barberzarrarena* (Olague), *Bikariozarrarena* (Arre, Olatz), *Bikariozarrearena* (Lizarraga), *Bikariozarrena* (Elkarte, Etxauri), *Donezarrena* (Añezkar), *Donjuanzarrena* (Etxauri), *Ellaginzarrena* (Urdaitz), *Gillenzarrena* (Urdaitz), *Jaunzarrenea* (Doneztebe), *Juanzar* (Leitza), *Juanzarrena* (Arruitz, Beruete), *Labazaizarrarena* (Arre), *Lopezarrenekoa* (Beriain), *Pedrozarrena* (Goizueta), *Sastrezarrarena* (Olondritz), *Suizarrena* (Luzaide), *Txastrezarrena* (Ukar), *Zapataginzarrena* (Arraitza), *Zurginzarrarena* (Arraitza). Kasu bera dugu haplologiagatik *Arotzarrarena* (Uritz) forma hartu duena. Batzuetan palatalizatu da, *txar* edo *xar* forma hartuz: *Danborintzarrena* (Erratzu), *Errementatxar* (Luzaide), *Okintzarra* (Añorbe). Zenbaitetan soilik, zuzenean atzizkiari lotua aurkitu dugu: *Txarrabaita* (Bera), *Txarrarena* (Elizondo), *Xarrarena* (dok. *Sarrarena*, Luzaide). Azkenik, behin kausitu dugu konposizioaren lehenengo osagai gisa: *Zarkumarena* (Ardaitz).

3.4. Egoera zibila eta soziala

- *Alargun*: *Alargunarena* (Etxarren, Izu).

- *Barragan*. *Obelagun* hitzaren gaztelaniazko ‘barragán’ kidean oinarrituta euskal forma hartu duen oikonimoa: *Barraganena* (Lekunberri). Bertzalde, *Barragán* abizen ezaguna da Nafarroan.
- *Bort*: *Bortarena* (Alli, Urritzola-Galain), *Bortena* (Orbaizeta), *Bortenea* (Oronoz, Sunbilla).
- *Eredero*. *Oinordeko* hitzaren gaztelaniazko ‘heredero’ ordainean oinarrituta sortu den euskal oikonimoa: *Erederoenekoa* (Ziritza).
- *Errege*: Hiru lekuko jaso ditugu, hirurak herri berekoak, eta bakoitza modu batera. Bata izena hipokoristiko atzizkiarekin: *Erregetxonea* (Lesaka), bertzea forma hori bera lekuzko postposizioarekin: *Erregetxonegaraia* (Lesaka) eta, azkenik, izen baten bigarren osagarri: *Mairuerregenea* (Lesaka).
- *Ezkonberri*: *Ezkonberri* (Oteitza Berriobeiti), *Ezkonberrienekoa* (Legarda), *Ezkonperria* (Eugi), azken hau *-b- > -p-* aldaketarekin.
- *Lander*: *Landerrena* (Ituren, Sunbilla).
- *Muxurdin*: *Muxurdin* (dok. *Mujurdin*, Orbaizeta). Iribarrenek dioenez, *muchurdina* edo *mushurdina* hitzek ‘solterona, moza vieja’ erranahia dute Nafarroako ipar-ekialdeko mendialdean. Baztanen, berriz, ‘mujer de gesto avinagrado y hosco’.
- *Peon*. Gaztelaniazko ‘chico’ gehi ‘peón’ hitz elkartuari euskal forma eman dion oikonimoa: *Txikopeonena* (Ostitz).
- *Petiri/pitiri* (*betiri/bitiri*). Erranahiaren aldetik, miseria edo gosearen nortzea da ‘personificación de la miseria, del hambre’. Aurkitu dugun lekuko bakarrean *bittiri* aldaera hipokoristikoa dugu: *Bittiribaita* (Lesaka). Ikus *Santsin* hurrengo sarreran.
- *Santsin*. Erranahiaren aldetik, gosearen nortze edo ‘personificación del hambre’ kontzeptuarekin lotua dagoela diote: *Santsinena* (Zugarramurdi), *Santsiñena* (Arraitz-Orkin). Ikus *Petiri* aitzineko sarreran. Dena dela, *Santsin Santxo* pertsona izenetik ateratako hipokoristikoa da. *Santsiñena* deitura ezaguna da Nafarroan behinik behin.
- *Sasi* (*xaxi*). Segur aski *bort* edo *bastart* adierazteko. Aurkitutako lekukoan *xaxi* hipokoristikoa dugu: *Xaxiarena* (Ituren).

3.5. Ahaideak eta hurbilekoak

- *Amigo*. Gaztelaniazko hitz ezagunean oinarrituta sortu den euskal oikonimoa: *Amigonea* (Lesaka). Aipatzekoa da *Amigorena* abizena

- nahiko ezaguna dela, Nafarroan behinik behin, eta *Amigo* Erdi Aroan pertsona izena ere bazela.
- *Barride*: *Barridekoa* (Etsain).
 - *Bezino*. *Auzoko* hitzaren gaztelaniazko ‘vecino’ ordainean oinarrituta sortu den euskal oikonimoa: *Bezinoena* (Ukar).
 - *Etxekon*. Teilatu bera aterpe duen ondoko etxebizitzakoa: *Etxekonena* (Zubieta).
 - *Izeba*: *Izebarena* (Ituren).
 - *Kuxin*: *Kusindegia* (Igantzi), *Kusiñenea* (Goizueta). Bere sorburuan egon liteke *cousin* frantses hitza, baina ezin da alde batera utzi OEHn erranahi bat baino gehiagorekin ageri den *kuxin* / *kuxina* hitza edota *Kosin* pertsona izena ere izan dela.
 - *Primo*: *Primonena* (Sunbilla), *Primorena* (Ilundain, Larrasoaña). *Lehengusu* hitzaren gaztelaniazko ordainean oinarrituta sortu den euskal oikonimoa izan liteke, baina ahantzi gabe *premu* (seme zaharrena, etxaldeko oinordekoa), *primu* eta *primo* bere aldaera ezagunak.
 - *Subi* (*xubi*). Izenondo bat atzetik duela ageri zaigu bi oikonimotan: *Suiederrena* (Lesaka), *Suizarrena* (Luzaide); konposaketaren bigarren osagai bezala batean: *Apezsuiena* (Mezkiritz) eta, azkenik, oinarritzat forma txikigarria hartuta hipokoristiko atzizkiari lotua bertze batean: *Xuitorena* (Ituren).

3.6. Lanbidea

Lanbidearen erreferentzia zenbaitetan izengoiti bihurtua ageri zaigu, bereziki tamaina edo adina adierazten duen izenondo batez osatua aurkitzen dugunean, edota hipokoristiko atzizki bati lotua.

- *Alkate*: *Alkatezarra* (Aurizberri), *Alkatezarrarena* (Lekunberri).
- *Apez*: *Apezzarrarena* (Badostain, Bidaurreta, Iriso, Muru-Asterain, Orrio, Sagues, Zarikiegi, Zurukuain), *Apezsuiena* (Mezkiritz).
- *Arotz*: *Arotzarrarena* (Uritz), *Arozberriarena* (Muru-Asterain).
- *Barber*: *Barberesumenetxikia* (Leitza), *Barberzarrarena* (Olague).
- *Bikario*: *Bikariozarrarena* (Arre, Olatz), *Bikariozarrearena* (Lizarraga), *Bikariozarrena* (Elkarte, Etxauri).

- *Danbolin*. *Danborin* aldaera du lehendabiziko osagaien eta txistukari palatalizatua bigarrenaren hasieran: *Danborintzarrena* (Erratzu).
- *Dendari*: *Dendarigaztearena* (Lesaka).
- *Ehuntzaille*. *E(h)untzale* aldaeran oinarritua: *Euntzaleberriarena* (Muru-Asterain).
- *Errementari*: *Errementatxar* (Luzaide).
- *Harakin*: *Arakintxoarena* (Goizueta), *Arakinzarrarena* (Ostitz).
- *Hauspagin*: *Auspagintxiki* (Leitza).
- *Ilagin*. *Elle* (artilea) sorburutik ateratako *ellagin* aldaera hartuz: *Ellaginzarrarena* (Urdaitz).
- *Labezain*. *Labazai* aldaeran oinarritua: *Labazaizarrarena* (Arre).
- *Okin*. Bigarren osagaiaren txistukari palatalizatuarekin: *Okintxarra* (Añorbe).
- *Sastre (txastre)*: *Sastrezarrarena* (Olondritz), *Sastrezuriarena* (Garralda). Lehendabiziko osagaiaren forma hipokoristikoa ere ageri da: *Txastrezarrena* (Ukar).
- *Zapatagin*: *Zapataginzarrarena* (Arraitza).
- *Zurgin*: *Zurginzarrarena* (Arraitza).

3.7. Jatorria

- *Basko*. Nafarroa Beheretik edo Iparraldetik etorritakoei jartzen zitzaien izena: *Baskonekoa* (Espartza Galar), *Baskorena* (Leranotz). Batzuetan *baskot* (*basko* eta (*o*)*t(e)*) hipokoristiko atzizkia) dugu oikonimoaren oinarrian: *Baskotena* (Doneztebe), *Baskotenea* (Zubieta).
- *Bizkaino*. Aurkitu ditugun bi lekukoetan izena hipokoristiko atzizkiarekin osatua ageri da: *Bizkaintxonea* (Lesaka).

3.8. Bertzelakoak

- *Erdimin*: *Erdimiñena* (Ukar).
- *Ordago*: *Ordagorena* (Sunbilla).
- *Oremus*: *Oremus* (Satrustegi).

- *Posible: Posiblerena* (Aitzoain).
- *Sandu: Sandua* (Nabaskoze), *Sanduarena* (Muskitz).
- *Zahagi: Paskualzaguia* (Lesaka).
- *Zahato. Za(h)atto* hipokoristikoan oinarritua: *Zattorena* (Elizondo).

4. ONDORIO GISA

Izengoitietan oinarritzen diren Nafarroako oikonimo historikoak jaso eta sailkatu ondotik, honako ondorio edo gogoeta hauek datozkigu burura:

- 4.1. Aztertu ditugun iturrietatik eta bibliografiatik zortzi bat mila oikonimo jaso ditugu eta kopuru horretako 600 baino zertxobait gehiago izengoitizat jo ditugu. Horrenbertzez, ondorioztatzen ahal dugu Nafarroako oikonimo historikoen % 8ren baten sorburu izengoitia direla.
- 4.2. Sarreran aipatu dugu XVII. mendera arte, batik bat, izengoitien erabilera nahiko arrunta zela.
 - 4.2.1. Alde batetik, ponte izenen bariedade eskasak horretara behartzen zuten. Izan ere, pertsona izen gutxi batzuk behin eta berriz errepikatuak aurkitzen ditugu. Erraterako, gizonaetako *Joanes* (eta bere aldaerak, *Joan*, *Juan*, *Joango*, *Joanot*, *Xoane...*), *Martin* (*Martie*, *Matxin*, *Martingo...*), *Migel* (*Mikel*, *Mikele*, *Mitxel*, *Mixelto ...*), *Pedro* (*Peru*, *Petri*, *Petritxo...*) izaten ziren arruntenak, eta emakumezkoetan, bertze guztien gainetik, *Maria* bere aldaera eta konposatuekin. Etxe izenetan ere errealitate hori bera islatzen da. Sorburu izengoitia dutenen artean badira 40ren bat *Joan* eta bere aldaeretan oinarritzen direnak: *Joangorriarena*, *Joanluzea*, *Joanzabalena*, *Joanzurirena*, *Juanandiarena*, *Joantxipirena*, *Juanbeltxena*, *Juanederreneana*, *Juanbiribil*, *Juangorena*, *Juangorrena*, *Juankotxipia*, *Juanikorena*, *Donjuanzarrena...*, eta kopuru hori baino zertxobait txikiagoa lehen aipatu ditugun bertze izenetan, hala nola, *Martinandiarena*, *Martinbelzbaita*, *Martingalant*, *Martingorriarena*, *Matxinandiarena...* *Mikelarginea*, *Migelariñena*, *Migelezkerrena*, *Migeltxipirena*, *Mitxelandinea...*, *Pedrogorriarena*, *Perotxikia*, *Perubeltzarena*, *Petrigalantenea*, *Petrikandiarena...*, *Mariederkorena*, *Mariandiabaita*, *Marigorotzena*, *Marimotzena*, *Maritxipitxonea...*

- 4.2.2. Bertze aldetik, deiturak finkatuak ez ziren garaian, pertsonak bereizteko bideetako bat zenbait ezaugarri fisiko, psikiko etab. aipatzea izaten zen. Lan honetan aztertu ditugun oikonimoetan honako hauek dira gehien ageri diren ezaugarriak: a) Kolorea, pertsonaren larruari edo ileari dagokiona, alegia: gorria, zuria, beltza eta urdina gehienbat (ikus 3.2.6. atala). b) Neurria: txikia, handia, luzea... (ikus 3.2.2. atala). c) Adina: zaharra, berria, gaztea (ikus 3.3. atala). d) Gorputzaren zatiak: burua, bizarra, musua... (ikus 3.2.5. atala). e) Itxura: ederra, galanta, motza, sotila, zabal... (ikus 3.2.3. atala). f) Izaera: apala, arina, bihurria, gaiztoa, harroa, zabarra, zintzoa... (ikus 3.2.4. atala).
- 4.3. Oikonimo historiko horiek bizirik diraute gaur egun bai etxe izenetan bai deituretan. Izan ere, izen horietako anitz deitura bilakatu ziren eta Euskal Herrian eta bere mugetatik kanpo ere gure oikonimia historikoaren lekuko biziak dira. Erraterako, Andiarena, Biurriarena, Bortarena, Burusko, Ezkerra, Ezkerro, Gorritxo, Luzea, Makurra, Marigorriarena, Perugorria, Urdiñena, Zuriko eta abar.
- 4.4. Aipagarria da izengoitietan oinarritzen diren oikonimoetan aurkitzen diren forma hipokoristiko eta txikigarri edo afektibo ugari, bi arrazoi nagusi hauengatik, gure ustez:
- 4.4.1. 2.2. atalean ikusi dugun bezala, izengoitiak berez hipokoristiko atzizki ugariz hornitzen dira, bertzeak bertze, pertsonak elkarrengandik bereizi eta zehaztu beharrak hala eskatzen zuelako: *Arakintxorena, Buruskonea, Juanikotxikiarena, Martingobeltzena, Migeltotxipia, Petrikoandiarena...*
- 4.4.2. Zenbaitetan hipokoristiko atzizkiez hornitzen ez badira ere, izen horiek forma hipokoristikoa hartu dute, izengoitietan ohi den bezala. Batzuetan pertsona izenei aplikatzen zaien palatalizazio adierazkorragatik: *Atxorena* (*atxo* < *atso*), *Buxtanena* (*buxtan* < *buztan*), *Galtxagorriarena* (*galtxa* < *galtza*), *Gixonena* (*gixon* < *gizon*), *Ixterrenea* (*ixter* < *izter*), *Ixurrenea* (*ixur* < *izur*), *Kattalinmotzenea* (*Kattalin* < *Katalin*), *Kaxkorena* (*kaxko* < *kasko*), *Kixonena* (*kixon* < *kizon* < *gizon*), *Mitxelandinea* (*Mitxel* < *Migel* edota *Mikel(e)*), *Moxorena* (*moxo* < *mozo*), *Muxugorri* (*muxu* < *musu*)... Bertze batzuetan izenondoei ematen zaien forma txikigarria edo afektiboagatik: *Beltxarena* (*beltxa* < *beltza*), *Bixkorrena* (*bixkor* < *bizkor*), *Luxenea* (*luxe* < *luze*), *Motxarena* (*motxa* < *motza*), *Txintxorena* (*txintxo* < *zintzo*), *Xorroxenea* (*xorrox* < *zorrotz*), *Xotilkorena* edo *Txotilkorena* (*xotil/txotil* < *sotil*), *Xabalarena* (*xabal* < *zabal*), *Xuxena* (*xuxen* < *zuzen*). Izen kon-

posatuetan, berriz, txistukariz hasten den bigarren osagarria maiz palatalizatzen da: *Burutxurirena* (*txuri < zuri*), *Buruxurirena* (*xuri < zuri*), *Danborintzarrena* (*txar < zar*), *Gizonxuriarena* (*xuri < zuri*), *Jakatxuri* (*txuri < zuri*), *Juantxintxenea* (*txintxe < txintxo < zintzo*), *Migeltxurirena* (*txuri < zuri*).

LABURDURAK:

CEEN	<i>Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra.</i>
FLV	<i>Fontes Linguae Vasconum.</i>
OV	<i>Onomasticon Vasconiae.</i>
PV	<i>Príncipe de Viana</i> aldizkaria.

ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA:

Nafarroako Artxibo Nagusia. Nafarroako Gobernu.

- “Inventarios del Reino” izeneko artxiboa, Estatistika Atala. *Apeos de Navarra de 1726 y 1727* agiria. XVII. mendeko bertze Apeo batzuk.
- Notari Protokoloen Artxiboa.

APEZETXEA, P. (1985), “Etxalarko etxe eta baserrien Izenak (1623-1983)”, *FLV* 45, 183-203.

ARIZTEGUI, J. M. (1998), *Casas antiguas de la villa de Lesaka (1366-1880)*, Lesaka. Argitaratu gabea.

AZKUE, R. M. (1984 [1905]), *Diccionario vasco-español-francés*, Euskaltzaindia, Bilbo.
— (1969 [1923-25]), *Morfología vasca*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, I. alea.

BIDADOR, J. (1992), “Noticias y restos del euskera del Val de Olo”, *FLV* 60, 277-295.

CARO BAROJA, J. (1945), *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*, Salamancako unibertsitatea.
— (1974), *De la vida rural vasca*, Estudios Vascos IV, Donostia.
— (1982), *La casa en Navarra*, Caja de Ahorros de Navarra, Iruñea, 4. zenbakia.

- COROMINAS, J. & PASCUAL, J. A. (1991), *Diccionario Crítico Etimológico Castellano e Hispánico*, Madril.
- EGUILLOR, R. (2001), “Presencia del euskera en Munarritz (Valle de Goñi)”, *FLV* 86, 123-146.
- EQUIZA, B. ETA BESTE (1984), “Labiano: estudio etnográfico-histórico”, *CEEN* 43, 5-37.
- ESPARZA, E. J. (1964), “De toponimia navarra”, *PV* 94-95, 67-126.
— (1965), “De toponimia navarra”, *PV* 98-99, 161-227.
- HERNANDORENA, V. (1978), “Goizueta’ko etxe eta baserri’en izenak: 1616 urtetik 1925’ño”, *CEEN* 28, 75-90.
- IBARRA MURILLO, O. (2003-a), “Erroibarko eta Esteribarko oikonimoak (I)”, *FLV* 91, 493-515.
— (2003-b), “Erroibarko eta Esteribarko oikonimoak (II)”, *FLV* 92, 129-163.
- IÑIGO, A. (1990), “Santesteban de Lerin haraneko izengoiti historikoak”, *Euskaltzaindiaren Onomastika III. Jardunaldiak*, Lizarra, O. V. 7 (inprimategian).
— (1996), *Toponástica Histórica del Valle de Santesteban de Lerín (Regata del Ezkurra)*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
— (2000), “Nombres de oficios en la oiconimia navarra”, *FLV* 83, 139-149.
— (2005), “Nombres propios de persona en la oiconimia navarra”, *La Onomástica en Navarra y su relación con la de España*. Iruñea, 2003.
J. L. Ramírez Sádaba (koord.), Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- IRIBARREN, J. M. (1984), *Vocabulario navarro*, (2. argit. R. Ollaquindiak paratua), Príncipe de Viana Instituzioa, Iruñea.
- IRIGOIEN, A. (1994), *Pertsona-izenak euskaraz nola eman*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- JIMENO JURÍO, J. M. (1986), *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Cizur*, OV 1.
— (1987), *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Galar*, O.V. 2.
— (1989), *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Olza*, O.V. 3.
— (1990), *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Iza*, O.V. 6.
— (1991), *Estudio toponímico de Burlada*, Burlatako Udala.
- KNÖRR, H. (1999), “Nombres de persona en el País Vasco: cuestiones históricas y de normalización”, *FLV* 80, 135-154.
- MITXELENA, L. (1969), “Apéndice: Notas sobre los nombres de persona en la Navarra medieval”, *FLV* 1, 1-59.

- (1989), *Apellidos Vascos*, 4. argitaraldia, Donostia.
- (1987-2005), *Diccionario General Vasco / Orotariko Euskal Hiztegia*, Euskaltzaindia, Desclée de Brouwer-Mensajero, I-XVI, Bilbo.

NAFARROAKO GOBERNUA, (1991-1999), *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza / Toponimia y Cartografía de Navarra*, I-LIX, J. M. Jimeno Jurio (zuz.), Iruñea.

ONDARRA, F. (1984), “Apeo de Baztán (1726-1727)”, *CEEN* 44, 5-47.

ROS GALBETE, R. (1978), “Aportación de datos para un estudio de la toponimia euskérica de la Cuenca de Pamplona”, *CEEN* 28, 63-74.

SALABERRI ZARATIEGI, P. (1996), “Nafarroako zenbait izengoitiren inguruan”, *Huarte de San Juan, Lingüística y Literatura*, 1, 1995, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Iruñea.

— (2003-a), “On hypocoristic formation in Basque”, *FLV* 93, 329-336.

— (2003-b), *Euskal Deiturategia: Patronimia*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.

SATRUSTEGI, J. M. (1961) “Aportación al estudio de la onomástica tradicional vasca”, *Euskera* VI, 209-229.

— (1969), “Las casas de Valcarlos”, *Revista de Dialectología y Tradiciones Populares*, XXIV, Cuadernos 1º y 2º, 120-145.

URTASUN VILLANUEVA, B. (1971), “Toponimia de Oroz-Betelu”, *FLV* 9, 333-347.

XALBADOR (Aire, F.). (2004), *Odolaren Mintzoa*, (3. argit. zuzendua eta gehitua, A. Zabalak eta E. Larrek paratua), Auspoa-Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.